

## ¡ETZUEN BESTERIK MEKEZI!



### I

Eche-aldeko seme bakar bat bizi zan bere gurasoen echera ezkon-  
duta.

Onen Aitari diruzko ondasuetan eta baso-echeen ugaritasunean, chit guchi ziran eramango ziotenak. Beragatik seme-erraiñen edo senar-emazte gazteen gogamen guziak bateratzen ziran noiz bañan noiz irichiko zan ondasun aien jabe izateko egun gozagarria.

Kopeteko izerdiarekin nekazaritzan irabaziak nola bai zituan Aitak ondasunik geienak, onen zarzaroko gurari guziak asetzen ziran, gazte denborako ordaiñez, noizik beñ perira joan-etorri batzuek egitearekin; oartuaz, sakelean beñere ontzako bat edo bestegabe gerta etzalarik, etzuela alperrikako gauzetan chanponik ere gastatuko, eta aiñ guchi jan-edan neurrigabekoetan. Itz batean, aiñ zan kontu aundi eta oitura onetakoa, non arrigarritzat eukitzen zuten echean illun eizkilarako biltzen etzan eguna.

Esan liteke ezik onelako guraso batek eziñ izan lezakeala, batez ere bere echaldikoen artean, etsairik; baiñan bazuan bat eta bi osatzeko gai ederrekoa alare.

Au zan erraña, semearen emaztea. Onek eziñ eraman zuan aita-giarreba sarritan perira joatea, eta senarrar erazotzen zion esanaz: Zuregatik bizi gera Aitaren mendean, beñere errieta bat egiteko beldurrez; bestetik berriz maizcho etortzen dira zure aitaren anaiaren semeak (lengusuaren izenik ere merezi eztuenak) ¿osaba nun da? galde-tuaz, eta loñcha dariotela or ibiltzen dute laztanduaz; ¿zergaitik lenbait len eragiñazten eztiozu aizken-nai edo *testamentua*? Ori gegeranatu ezkerotz, jaun da jabe izan besterik ezgenduke.

Arrazoi dezu—erantzun zion senarrak—len ere gauz ori esan ga-

bez bein bañan geiagotan ez naiz; eta zuk diozun antzera, Aitaren anaiaren semeak, naigabetzea naute neroni ere ikusi utsarekiñ. ¡Orain baneki nik nolatan moldatu aizken-naia!...

Begira—esaten dio emazteak.— askotan aditu izan diot zure Aitari, Iruñan egin nai lukeala lan ori, an arki duelako Eskribau lagun bat; eta aih egoki egun oietanche nola baitiran uri arretan perriak, aiek erakusteko aitzekiarekiñ errez eraman aziko dezu, eta bide batez bi lan egiñ zeinikizue. Orretarako, keska gabe urruti iritzik dio oñez joatea, eta kendu zaiokezu nere anaiari mandoa, eta abere piñean pozik abiatuko da aruntz. Zuretzat ere ibillera aundia da oñez egiteko, bañan alderdi bat badaukazu; joanera oñez egiñarren, etorrerarako nola aizken-naiak eginkizunik izango ez tuen, gogorrean bereik zerorri etorri mando gaiñean.

Esan ta egin. Aitari itz eztitsuakin sar-erazo dio Iruñara joan bear duela perira mando-gañean; eta guraso onak siñizturik aitaganako naitasunak mugierazi zuela semea erromeri eder-ura egiteko alkarren lagundian, poz-pozik artuaz albistea, dio laztanduaz semeari: «Ene semechoa, ezer bada ta joan-etorri ori atsegiñ aundiz egingo det zurekiñ eta bide batez lagunduko dirazu aizken-naia egiten».

¡¡Eztituan nai orduko semeak entzun itz oiek!! Laister biderako bear zituenak artu ta abiatu ziran Aita-semeak.

## II

Bata mando-gañean eta bestea oñez irichi dira Aita-semeak Iruñara. Joan dira perira bat-banaka abere zaill aundiak ikusiaz, eta bitarte onetan legunkiro churikatu du semeak Aita bere nai-erara egin zezan amets guzien gogainena, jaizken-nai opagarria.

Eldu zan bada au egiteko ordua ere; eta Aitak bere oiñ ordekotzat utzi ziozkan zituan ondasun dendanak semeari. Onen poz-atsegiña ondasunen jabe ikusirik bere burua; onen musu-laztantzeak Aitari.. Baiñan azalekoak... Judas-ek Jesukristo gure Jaunari eman zion laztanaren antzekoak... gezurrezkoak.

## III

Badijoaz echeruntz, etorri ziran antzera Aita mando gañean eta semea oñez; eta ozta igaro dute ordu-erdiko bidea, eskergabeko semeak auzardia izan zuan Aitari esareko itz oiek:

—¿Badaki, Aita, gauza bat gogoratu zaidala? Onuntzean ere bero-

rri etorri da mando-gañean; egia da zarra dagoela... eta ezurrak gogottuak eukiko dituela... baiñan... beti gazteak nekatzea ezterizkiot egoki eta jechi bedi mandotik, ni igo nadiñ.

Bat-batean igarri zuan Aitak, zer zetorkion seme arregandik ondorenean, aizken naian jabe egin zan ordurako ikusirik gertaera ura; eta bera era nola ezpaizan motela, jechi zan mando-gañetik eta dio semeari:

—Seme: iri gauza bat gogoratu zaiken bezela, neri aztu egin zaidak beste bat aizken-naian aitortzea eta ostera Iruñara joan bear diat.

Suzmurturik semeak bereala, beretzat kaltegarriren bat, erregutzen dio Aitari igo dedilla berriro mando gañean ....

Bañan beiñ bai ta berriz ez. Jo du Aitak Eskribau-echea eta lendik egiña ukatuta, berriro egin du aizken naia, arditik ere utzi gabe semeari eta zituen ondasunen jabe izendatuaz bere illobak, anaiaren semeak....

.....

Eztaikit ondo egin zuan Aitak; baiñan semeari dagokionagatik, atsegini det erantzutea: ¡Etzuen besterik merezi!

BALERIANO MOKOROA.

